



# Bokadiloen tamainatik zakil marraztuetara: bikotearen eskaerak entzuteko gonbidapena

Harreman asko ere despiste hutsa dira. Hasieran pertsona horrek ez digu *tilin* egiten. Eta gero, txora-txora eginda bukatu dezakegu, gure irudikapen guztien kontrara. Harrituta bezain pozik. Eta alderantziz. Probatu gabe, ezin dugu jakin. Ezagutzen joatea da koxka. Pixkanaka. Geruzaz geruza.



baina eskatzen dizkigute eta ematen ditugu. Nik honakoa emango nuke gustura. Ez joan terapiara terapeuta zure narratibarekin konbentzitu nahian. Kontrara, errelato, esanahi eta egiteko modu berri freskagarriak jasotzera joan. Zure bertsioa ondo ezagutzen duzu zuk. Bikotea baldin baduzu, berak ere bai. Listo. Bikotea manifestazioak eta grebak egiten ari bazazizu, muturtuta, zure burua zalantzan jartzea tokatzen zaizu. •